

Zentral nuklear gutxiago, baina CO₂ emisio txikiagoa

BERRIKI argitara emandako datuen arabera, Alemanian, 2011. urtean, nahiz eta hamazazpi erreaktore nuklear geldirik izan karbono dioxido emisioek behera egin zuten 2010eko datuekin alderatuz. 2011n 917 milioi tona aireratu ziren, eta 2010ean 944 milioi tona izan ziren emititutakoak, hau da, %2,9 gehiago.



2011ko negua ez zen oso gogorra izan Alemanian, eta ondorioz, aurreko urtean baino 24 milioi tona gutxiago emititu ziren etxeen berokuntzaren alorrean; baina aldi berean, esan beharra dago urte horretan BPG %3 hazi zela. Horren arabera, ekonomiaren hazkundeak ez zuen eragin emisio hazkunderik. Datu hori ulertezina da energia berriztagarrien aurrerakada kontuan hartu gabe.

2020 bitartean Alemaniak karbono dioxido emisioetan %40ko murrizketak egitea du helburu, nahiz eta Europar Batasunak %20koa egitera besterik ez duen behartzen. ■



Zertarako hartu zuen EPOa Armstrongek?



2013KO URTARRILEKO berri aipatuenetakoa izan da Armstrong txirindulari ohiak elkarrizketa batean esandakoa. Aitortzaren zergatiak gorabehera, aukera ona izan daiteke EPOari buruzko datu soil batzuk gogoratzeko.

Eritropoietinaren siglak dira EPO. Hormona natural hori 1906. urtean aurkitu zuten, eta giltzurrunak jariatzen du. Globulu gorriak

sortzen ditu, eta hemorragia dagoenean oxigeno galera konpentsatzen du.

Kirolariek EPOa bere buruari injektatzean oxigeno ekarpena hobetzen dute, eta horrela, denbora luzeagoz egin ditzakete ahalegin handiak. Aldiz, odola loditu egiten denez arazo kardio-baskularrak edota garunekoak izateko arriskua areagotu egiten da. ■



Intsektu batzuek badakite zenbatzen

Valentziako Unibertsitateko ikerlari talde baten arabera, irinaren labezomorroaren (*Tenebrio molitor*) arrek badakite zenbat arerio –hau da, espezie bereko beste arrek– izango dituzten eme batekin sexu harremanak edukitzeko garaian. *Frontiers in Psychology* aldizkarian argitaratutako artikuluaren eman dute ikerlanaren berri.

ttiki.com/46597 (Ingelesez)
ttiki.com/46598 (Gaztelaniaz)

Mareetako energiaren gorabeherak

Renk-eko (Bretainia) mareen zentralak arazo ekologikoak sortu ditu bertako badian. Berriki, AEBetako ikerlari batzuek zentral mareomotrizek sortu ditzaketen arazo berri eman digute. Diotenez, turbina asko instalatzeak badia bateko uraren berriztatzea moteldu dezake.

ttiki.com/46599
(Gaztelaniaz)

Jogurtek oso luze iraun dezakete

Madrilen dagoen CEU San Pabloko Esther Carrera ikerlariaren arabera, hozte baldintzak egokiak baldin badira, jogurtak denbora oso luzez egon daitezke jateko moduan. Ondorioz, gaur egun jogurtei ezartzen zaien iraungitze-epea handitzerik izan daiteke, baina baldintza jakinetan.

ttiki.com/46600
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



www.iametza.com
T.943 37 67 16